

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### **Kultura, kirol eta gizarte arloko diru-laguntzetarako deialdia. 2019ko ekitaldia**

Aramaioko Udaltzaren 2019ko martxoaren 5ean erabaki zuen, behean sartuta dagoen deialdia egitea, kultura, kirol eta gizarte arloan diru-laguntzak emateko.

Aramaion, 2019ko martxoaren 12an

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*

#### **KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRULAGUNTZA. 2019KO DEIALDIA**

##### OINARRIAK

#### **1. Deialdiaren xedea**

Aurrekontuaren mugen barruan, gastuen finantzaketan laguntzea Aramaioko udalerrian 2019an antolatzen diren kultura, hezkuntza, euskararen sustapen eta kirol eta/edo gizarte arloetako jardueri.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 17.080,16 eurokoa da.

#### **2. Onuradunak**

Dirulaguntza deialdi honetara elkarrekin, kultura eta/edo gizarte taldeak eta entitate publiko zein pribatuak aurkez daitezke, baldin eta irabazteko asmorik ez badute eta aurreko puntuan zehaztutako ekintzen artekoen baten bat bada; Aramaion eduki beharko dute egoitza, eta gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribatuta egotea.

– Beren programak eta aurrekontuak Administrazio Publikoaren publikoen ikuskaritzapean jartzea.

Herritarrak ere aurkeztu ahal izango dira, banaka, baldin eta maiz edo noizbehinka biltzen badira adieraziko motako jarduerak egiteko eta aurrekoari kalterik egiten ez badi.

#### **3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak**

Dirulaguntza hauek kultura, aisia, gizarte ekintza, hezkuntza, euskara eta kirol arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira.

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erljio edo sexu arrazoiengatik baztertzen duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzen duenik.

- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratatu txarrak jasaten duenik.

- Ingurugiroa kaltetzen dutenik.
- Ekintzaren bueltan egin beharreko zabalkunde eta publizitate jardueretan euskara ez dabiltenik.

#### 4. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laguntzak jaso nahi dituzten elkarteek eskaera aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin batera:

- Eskaera-orri ofiziala( Eranskina).
- Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, elkartearen ordezkari den aldetik, eta elkartearen IFZ.
- Erakundearen estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria (eskaera egiten den lehenengo aldian edo aldaketaren bat egiten denean soilik aurkeztu beharrekoa).
- Aurreikusitako ekitaldien programa, urtero egiten den aldirako (lortu nahi diren helburuak, jarduera bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena, nori zuzenduta dagoen eta jardueren onuradunen kopurua). ( II. Eranskina).
- Dirulaguntzaren bidez garatzekoak diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Dirulaguntza jaso ahal izango duen programa garatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako dirulaguntzen zinpeko aitortpena edo, badaude, emandako dirulaguntzena eta ematear daudenena.
- Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. (III. eranskina).

Azkeneko bi agiri horiek, Diru-laguntzei buruzko 38/03 Lege Orokorren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan jasotzen diren onuradun izaera lortzeko debekuen eraginpean ez egotearen aitortpenak ordezkatu ahal izango ditu. Aitortpen hori administrazioko agintariaren aurrean aurkeztuko da. (II. Eranskina).

Dirulaguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko dirulaguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

#### 5. Eskaerak aurkezteko epealdia

Eskaerak aurkezteko hogeita egun naturaleko epealdia egongo da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak, hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak urteko azaroaren 18rako aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei dirulaguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Aramaioko Udalaren helburu publikoetarako interesekoak badira.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

## 6. Balorazio irizpideak

Aramaioko Udalak emango dituen dirulaguntzak ekitaldiak aurrera eramateko elkarteek izaten duten defizitaren zati bat estaltzeko izango dira, udalaren ustez dirulaguntza jaso ezin duten gastuen aurrekontua kendu ondoren.

Dirulaguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk egongo deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

6.1. Eskaeran adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

6.2. Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera izango dira.

Ondorengo hauek ez dira gastu konputagarriak puntuazio baremoaren arabera laguntza kalkulatzeko, ez eta justifikatzeko modukoak ere, baina bai jardueraren gastu osoa konputatzeko:

– Janariak oro har.

## 7. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari dirulaguntza eman edo ez ebartzeko da.

7.1. Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna kultura arloko zinegotzia izango da.

Balorazio batzordea kultura batzorde informatzaileak osatuko du.

Ebazteko eskumena Alkateak dauka.

7.2. Aztertzea eta ebaztea.

Bideratzaileak jarduera hauek egin behar ditu:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu.

– Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

– Espedientea ikusita, bideratzaileak ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta.

– Ebazpen proposamenak puntu hauek eduki beharko ditu, gutxienez: diruz lagundu daitekeen proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.

– Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

– Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekursoak, zer organo judizial aurkeztu behar dizkieten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Eskaerak ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik,

haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

#### **8. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Jasotako dirulaguntza berriro azertu ahal izango da, dirulaguntza osagarriak edo beste erakunde batzuen dirulaguntzak jaso direla jakindakoan, bai eta bestelako diru sarrerarik izan bada ere.

#### **9. Zuritzea eta ordaintzea**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 75, ematea ebazten den unean.
- Gainerakoa, diruz lagundutako jarduerak eta programak egin direla justifikatzen denean; horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria-likidazioa eta justifikazio kontu erraztua; datu hauek adierazi behar dira:

- Egindako jarduerak.
- Aldiak: egunak eta orduak.
- Parte-hartzaileak.
- Helburuak eta balorazioa.

– Jarduerak sortutako sarrera eta eragindako gastu guztien balantzea. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...)

2) Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiri (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiriak onartuak izateko, ondorengoa jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa eta faktura zenbakia.

Udalak egoki irizten dituen dokumentu gehigarriak eskatu ahal izango dizkie onuradunei.

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

3) Zinpeko aitortpena: xede bererako edozein administrazio edo erakunde edo entitate publikorengandik dirulaguntzak edo laguntzak jaso(k) o dituen edo ez. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

Aurkeztutako ordainagirien kopurua diruz lagundutako aurrekontua baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako jardueraren bat burutu ez bada, onuradunak horren berri emango dio udalari, gainerako zenbatekoa udalaren diruzaintzan sartzeko edo, bestela, diru-laguntza murrizteko.

Justifikazioa abenduaren 30a baino lehen aurkeztu behar da, deialdia zein urteri dagokion, urte hartan.

**10. Arauak ez betetzea eta ondorioz dirulaguntza itzuli behar izatea**

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da dirulaguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.


**ARAMAIOKO UDALA  
ARABA**

Esp. Kod./Cód. Exp.: 2019EDLK0001

Gaia/Asunto: 2019ko TALDE SOZIOKULTURALEN  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA
**I. Eranskina/ Anexo I  
UDAL DIRULAGUNTZA / SUBVENCIONES MUNICIPALES  
ESKAERA - SOLICITUD**
**ESKAERA AURKEZTU DUENAREN DATUAK/ DATOS DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD:**

Izen- abizenak/ Nombre y apellidos.....

NAN/ DNI. - .....

Zein izaera duzu erakunderako?/ ¿ Con qué carácter actúas para la entidad?.- .....

**ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK/ DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE:**

Elkartea /Asociación. - .....

I.F.K/ C.I.F.-..... Helbidea/Dirección. -.....

Herria/Localidad. -..... Posta kodea/ código postal. - .....

Elkartearen erregistro zbk. eta data Fecha y N° registro de la asociación. -.....

Bankuko Kontu zenbakia /N° cuenta bancaria. - (20 digito) .....

Ordezkarari legalaren izen-abizenak / Nombre y apellidos del representante legal. - .....

Tfno.- ..... e-mail. - .....

Bazkide edo Kirol kideak /N° de socios- socias o componentes. - .....

**Udalerrian erroldaturik dauden bazkideen kopurua/ N° de socios/as que están empadronados en el Municipio. - .....****Eskatzaileak jarduera berarentzat beste dirulaguntza bat eskatu edo jaso du**La entidad ha solicitado o recibido otra(s) ayudas para la misma solicitud BAI/ Sí  EZ/ No **Eskatu den erakunde publiko edo pribatuaren izena/ Nombre de la entidad pública o privada en la que se solicitó. - .....****Eskatutako edo jasotako kopurua/ Cuantía solicitada o recibida. -.....**IRAKURRI dut atzean dagoen datuen babeserako oinarritzko informazioa eta ONARTZEN dut bertan adierazten zaidana.  
HE LEIDO la información básica sobre protección de datos descrita a continuación y manifiesto mi CONFORMIDAD con lo solicitado.

Fecha/ data.-

Firma/ Sinadura.-

Datu babesari buruzko oinarritzko informazioa	Información básica sobre Protección de Datos
<b>Arduraduna</b> Aramaio Udala	<b>Responsable</b> Aramaio Udala
<b>Helburua</b> Interesdunen eskaera kudeatzea.	<b>Finalidad</b> Gestión de las solicitudes de los/las interesadas/os.
<b>Legitimazioa</b> Interesdunaren onarpena	<b>Legitimación</b> Consentimiento del/de la interesado@
<b>Hartzaileak</b> Ez zale daturik lagako hirugarreni, legeak agindu ezean	<b>Destinatarios</b> No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal
<b>Eskubideak</b> Datuak alitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarria azaltzen denez	<b>Derechos</b> Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional
<b>Informazio osagarria</b> Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu gure web orrian: <a href="http://www.aramaio.eus">http://www.aramaio.eus</a>	<b>Información adicional</b> Puede consultar más información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra página web: <a href="http://www.aramaio.eus">http://www.aramaio.eus</a>
<b>Araudia:</b> Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa).	<b>Referencia legal</b> Reglamento general de protección de datos (Reglamento (UE) 2016/679, del 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos).



ARAMAIOIKO UDALA  
ARABA

Gaia/Asunto: 2019ko TALDE SOZIOKULTURALEN  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Esp. Kod./Cód. Exp.: 2019EDLK0001

#### II. Eranskina/ Anexo II

EKINTZA Actividad	HELBURUAK Objetivos	EGUN KOPURUA Número de días	PARTEHARTZAILE KOPURUA Número de participantes	TOKIA Lugar	AURREKONTUA (Zehaztu banan-banan) Presupuesto (detallar cada uno)	DIRUSARRERAK (Zehaztu banan-banan) Ingresos (detallar cada una)

Fecha/ data.-

Firma/ Sinadura.-



**ARAMAIOKO UDALA  
ARABA**

Esp. Kod./Cód. Exp.: 2019EDLK0001

**Gaia/Asunto:** 2019ko TALDE SOZIOKULTURALEN  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA

**III. Eranskina/ Anexo III: AITORPENA/ DECLARACION**

**Izen-abizenak/Nombre y apellidos.** - .....

**NAN/ DNI.** - .....

**Helbidea/Dirección.** - .....

**Herria/ Localidad.** - ..... **P.K./C.P.** - .....

**Elkartearen izenean/ En representación de la Asociación.** - .....

**Elkartearen IFZ/ CIF de la entidad.** - .....

Eskatzaileak aitortzen du:	La persona/Entidad declara:
<p>a. Ez dagoela kondenatua epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera gaitzera.</p> <p>b. Lehiaketa aitortpena ez duela eskatu, eta ez duela kaudimengabe izendatu inongo prozeduratan, lehiaketan aitortua ez dela izan, eta kontu-hartze judizialen pean ez dagoela, eta Lehiaketa Legearen arabera ez dagoela desgaitua, lehiaketaren kalifikazio epaian ezarritako desgaitze epea bukatu ez denean.</p> <p>c. Auziren batean errudun deklaratzeko dela eta , ez duela Administrazioarekin egindako edozein kontraturaren ebazpen irmorik bultzatu.</p> <p>d. Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administrazioaileak, edo beste pertsona juridikoen legeko ordezkariak duten pertsonak ez daudela ondoren aipatzen diren legeek aurreikusitako suposamenduren batean: maiatzaren 11ko 12/1995 Legea, Nazioaren Gobernuakideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen Bateriaezintasunari buruzkoa; abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa; ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskuntzetarako Lege Orokorra, hautatutako karguak arautzen dituen, bertan adierazten diren terminoetan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoa.</p> <p>e. Indarreen dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharraren edo Seguritate Sozialarekikoetaren eguneratua dagoela, araudiak ezartzen duen forman.</p> <p>f. Ez duela egoitza fiskala araudiak paradisu fiskal gisa ezagutzen duna lurralde edo herrian.</p> <p>g. Diru-laguntza ordaintzeko direla eta betebeharren ordaintzeko eguneratua dagoela, araudiak ezartzen dituen terminoetan.</p> <p>h. Ebazpen irmo batekin diru-laguntzak jasotzeko eskubidea kentzeko zigorrak ez izatea, Lege honen arabera edo Zerga Lege Orokorren arabera.</p> <p>i. Ez dagoela, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren, Elkarte Eskubidea Arautzen duenaren, 4.artikuluaren 5 eta 6 ataletan, aurreikusitako debeku arrazoien batean sartua.</p> <p>j. Inskripzioaren administrazio prozedura eten egin zaion elkarte ez izatea, elkartearen eraketan ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak atzematen direlako 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikulua aplikatuz.</p>	<p>a. No haber sido condenada mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.</p> <p>b. No haber solicitado la declaración de concurso, no haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no hallarse declarada en concurso, no estar sujeto a intervención judicial o haber sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.</p> <p>c. No haber dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.</p> <p>d. No estar incurso la persona física, la administración de las sociedades mercantiles que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 12/1995, de 11 de mayo, de Incompatibilidades de los Miembros del Gobierno de la Nación y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.</p> <p>e. Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.</p> <p>f. No tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.</p> <p>g. Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.</p> <p>h. No haber sido sancionada mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según esta Ley o la Ley General Tributaria.</p> <p>i. No estar incurso en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, Reguladora del Derecho de Asociación.</p> <p>j. No ser una asociación respecto de la que se hubiera suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002.</p>

.....(e)n, ..... Sinadura/ Firma

**BAIMENAK / CONSENTIMIENTOS**

Baimena ematen diot, deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko:

*Autorizo al órgano gestor de esta convocatoria a la comprobación, constancia o verificación en la Administración competente por medios telemáticos o en su caso, por los medios que estén disponibles:*

Zerga betebeharrak egunean edukitzea/ *Cumplimiento de las obligaciones tributarias:*  Bai /  Sí  Ez /  No  
 Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea/  Bai /  Sí  Ez /  No  
*Cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social:*

.....(e)n, ..... Sinadura/ Firma





**ARAMAIOKO UDALA  
ARABA**

Esp. Kod./Cód. Exp.: 2019EDLK0001

**Gaia/Asunto:** 2019ko TALDE SOZIOKULTURALEN  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Datu babesari buruzko oinarritzko informazioa	Información básica sobre Protección de Datos
<b>Arduraduna</b> Aramaio Udala	<b>Responsable</b> Aramaio Udala
<b>Helburua</b> Interesdunen eskaera kudeatzea.	<b>Finalidad</b> Gestión de las solicitudes de los/las interesadas/os.
<b>Legitimazioa</b> Interesdunaren onarpena	<b>Legitimación</b> Consentimiento del/de la interesad@
<b>Hartzaileak</b> Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legeak agindu ezean	<b>Destinatarios</b> No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal
<b>Eskubideak</b> Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez	<b>Derechos</b> Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional
<b>Informazio osagarria</b> Datu babesari buruzko informazio osagarria eta zehatza eskura dezakezu gure web orrian: <a href="http://www.aramaio.eus">http://www.aramaio.eus</a>	<b>Información adicional</b> Puede consultar más información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra página web: <a href="http://www.aramaio.eus">http://www.aramaio.eus</a>
<b>Araudia:</b> Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez persona fisikoak babesteari buruzkoa).	<b>Referencia legal</b> Reglamento general de protección de datos (Reglamento (UE) 2016/679, del 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos).
<input type="radio"/> IRAKURRI dut datuen babeserako oinarritzko informazioa eta ONARTZEN dut bertan adierazten zaidana. <input type="radio"/> HE LEIDO la información básica sobre protección de datos y manifiesto mi CONFORMIDAD con lo solicitado.	

Aramaion, 20\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_an

En Aramaio, \_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 20\_\_

Sinadura  
Firma



**ARAMAIOKO UDALA  
ARABA**

Esp. Kod./Cód. Exp.: 2019EDLK0001

Gaia/Asunto: 2019ko TALDE SOZIOKULTURALEN  
DIRULAGUNTZA DEIALDIA

**IV. Eranskina/ Anexo IV**

**2019AN ARAMAIOKO UDALERRIAN EGINGO DIREN KULTURA, EUSKARAREN SUSTAPEN ETA/EDO  
GIZARTE PROGRAMAK: PUNUAZIO BAREMOAK**  
*BAREMOS DE PUNTUACIÓN PARA LOS PROGRAMAS CULTURALES, PROMOCION EUSKERA Y/O  
SOCIALES EN EL MUNICIPIO DE ARAMAIO • 2019*

<b>PARTEHARTZAILE KOPURUA / NÚMERO DE PARTICIPANTES</b>	<b>PUNTUAK</b>
10 bitartean/ Hasta 10 participantes	3
11-20 bitartean/ Entre 11 y 20 participantes	10
21-50 bitartean/ Entre 21 y 50 participantes	20
51-80 bitartean/ Entre 51 y 80 participantes	40
81-100 bitartean/ Entre 81 y 100 participantes	55
101 baino gehiago/ Más de 101 participantes	80
<b>EGUN/JARDUN KOPURUA/ NUMERO DE DÍAS/ JORNADAS</b>	<b>PUNTUAK</b>
Egun 1/ Actividad de 1 día de duración	1
2-7 bitartean/ Actividad de 2 a 7 días de duración	5
8-15 bitartean/ Actividad de 8 a 15 días de duración	10
16-30 bitartean/ Actividad de 16 a 30 días de duración	15
31-60 bitartean/ Actividad de 31 a 60 días de duración	25
61 baino gehiago/ Actividad de más de 61 días de duración	50
<b>AUTOFINANZAKETA/ AUTOFINANCIACION ( Udal dirulaguntza zenbatu gabe)</b>	<b>PUNTUAK</b>
Aurrekontuaren ehuneko 90 baino gehiago/ Más del 90% del presupuesto	90
Ehuneko 75 eta 89 bitartean/ Entre el 75% y el 89% del presupuesto	60
Ehuneko 60 eta 74 bitartean/ Entre el 60% y el 74% del presupuesto	45
Ehuneko 45 eta 59 bitartean/ Entre el 45% y el 59% del presupuesto	30
Ehuneko 30 eta 44 bitartean/ Entre el 30 y el 44% del presupuesto	20
Ehuneko 10 eta 29 bitartean/ Entre el 10% y el 29% del presupuesto	10
Aurrekontuaren ehuneko 10 baino gehiago/ Menos del 10% del presupuesto	5
<b>GASTUEN AURREKONTUA/ PRESUPUESTO DE GASTOS</b>	<b>PUNTUAK</b>
1 euro eta 499 euro artean/ Entre 1 • y 499 ••	3
500 euro eta 2.499 euro artean/ Entre 500 • y 2.499 ••	10
2.500 euro eta 3.999 euro artean/ Entre 2.500 • y 3.999 ••	15
4.000 euro eta 5.499 euro artean/ Entre 4.000 • y 5.499 ••	30
5.500 euro eta 6.999 euro artean/ Entre 5.500 • y 6.999 ••	40
7.000 euro eta 8.499 euro artean/ Entre 7.000 • y 8.499 ••	50
8.500 euro eta 9.999 euro artean/ Entre 8.500 • y 9.999 ••	65
10.000 euro baino gehiago/ Más de 10.000 ••	80
<b>JARDUEREN IZAERA/ NATURALEZA DE LA ACTIVIDAD</b>	<b>PUNTUAK</b>
<b>Euskara erabiltzeko programa/</b> Programa encaminado a la utilización del euskera	30
<b>Euskara sustatzeko programa/</b> Programa encaminado a la promoción del euskera	60
<b>Formakuntzara bideratutako ekintza puntualak/</b> Actividades formativas puntuales	10
<b>Formakuntzara bideratutako urteko ekintzak/</b> Actividades formativas anuales	100
<b>Aukera berdintasuna propio sustatzen duten programak/</b> Programas que fomenten propiamente la igualdad de oportunidades	25

\* **Formula: Aurrekontua lortutako puntuen batuketarekin zatituko da eta emaitza puntu bakoitzeko balioa izango da.**

\* **Fórmula:** El presupuesto se dividirá entre la suma de la puntuación obtenida siendo el resultado el valor de cada punto.